



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 16a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00012. Foru Legea, justizia errestituatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestituatibo komunitarioei buruzkoa. Akats zuzenketa (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-23/MOC-00013. Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxe ez-unibertsitarioetako jantokiak arautzen dituen araudia aldatzeko, halako moduz non dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen artean sartuko baitira despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak. Hezkuntza Batzordeak onetsia (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Aldatzea Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak, 2015eko urriaren 13ko Mahaiaren Erabakiaren bidez onetsiak (8. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena. Zuzenketa mantentzea (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00012. Foru Legea, justizia errestituatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestituatibo komunitarioei buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Justizia errestituatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestituatibo komunitarioei buruzko Foru Legean akats bat atzeman da (legea 2023ko martxoaren 13ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da:

Hitzaurrean, hau esan ordeiz:

“XXI. mendearen **bigarren** hamarkadan justizia egiteko beharrezkoa da epaitegi eta auzitegien lana osatzea zenbait zerbitzu, teknika eta antolaketa neurriekin, horien bidez posible delako sakontzea jurisdikzio-ahalaren erro demokratikoetan, Konstituzioak esleitzen dizkionetan, ahal hori “herriarengandik sortzen dela” adierazten baitu 117. artikuluan. Europako eta estatuko hainbat lanabes juridikotan adierazten denez, justizia demokratikoagoa eta pertsonen beharretatik hurbilagoa eraikitzeke, zeregin zentrala dute, batetik, ikuspegi errestituatiboak, paradigma emankorra

eta sendotua baita, eta, bestetik, bitartekaritzak, tresna ezaguna eta zabaldua den aldetik”.

Honako hau esan behar du:

“XXI. mendearen **hirugarren** hamarkadan justizia egiteko beharrezkoa da epaitegi eta auzitegien lana osatzea zenbait zerbitzu, teknika eta antolaketa neurriekin, horien bidez posible delako sakontzea jurisdikzio-ahalaren erro demokratikoetan, Konstituzioak esleitzen dizkionetan, ahal hori “herriarengandik sortzen dela” adierazten baitu 117. artikuluan. Europako eta estatuko hainbat lanabes juridikotan adierazten denez, justizia demokratikoagoa eta pertsonen beharretatik hurbilagoa eraikitzeke, zeregin zentrala dute, batetik, ikuspegi errestituatiboak, paradigma emankorra eta sendotua baita, eta, bestetik, bitartekaritzak, tresna ezaguna eta zabaldua den aldetik”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

LANDA GARAPENENKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2023ko urtarrilaren 23ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2023ko martxoaren 8an eta 14an egingako bileran onetsia.

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako Abereen Osasunari
buruzko azaroaren 16ko 11/2000
Foru Legea aldatzekoa**

HITZAURREA

Abereen gaixotasun kutsagarriek ondorio latzak izan ditzakete abereentzat eta abeltzainenentzat, baita ekonomian ere. Era berean, osasun publikoari eta elikagaien segurtasunari ere eragin diezaiekete. Europar Batasunak, 2007az geroztik, erabaki zuen estrategia berri batekin jokatzeko abereen osasunaren arloan, eta arauen garapenerako oinarritzat hartu zuen "Aurre hartzea, sendatzea baino hobea" dioen printzipioa. Animalien gaixotasun transmitigarriei buruzko 2016ko martxoaren 9ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/429 Erregelamendua —abereen osasunaren arloko egintza batzuk aldatu edo

indargabetu egiten dituen— argitaratzeak norabide horretan lanean segitzeko beharra indartzen du.

Prebentzioari heltzeko garaian, abeltegien kokapena eta diseinua izaten da baldintza nagusietako bat. Abeltegia kokatuta dagoen eremuko abere-dentsitateak baldintzatzen du eritasun kutsakorak izateko arriskua. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da ustategien gehieneko ekoizpen-ahalmena eta abeltegien arteko distantzia arautzea, eta, horrela, abere-dentsitatea mugatzea. Jarduketa horrek apaldu egingen du eritasunak zabaltzeko arriskua, erraztu egingen baitu eritasun fokuren bat detektatzen denean hura kontrolatu eta desagerrarazteko lana, eta, beraz, haren ondorioak gutxituko baititu.

Abereen Osasunari buruzko egungo Foru Legeak 28. artikuluan aipatzen ditu elementu horiek. Arau honek artikulua horren testua aldatzen du, eta abeltegiaren gehieneko ekoizpen-ahalmena ezartzen duen eranskin bat gehitzen du.

Foru lege honek 39. artikulua aldatzen du, abeltegiari ematen ahal zaion gehieneko kalte-ordainaren zenbatekoa mugatzeko, ustategi handiek osasun arriskuen aurrean prebentzio neurriak hartzea eta erantzunkidetasunez jokatzeko sustatzeko helburuarekin.

Era berean, ugalketa-ahalmenaren muga gainditzea tipifikatu egin da azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen zehapen-araubidean sartutako zehapen gisa.

Bestalde, kontuan hartu behar da abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren bidez behitegiak arautzeko oinarritzko xedapenak ezarri direla.

Arau horri jarraikiz, behitegien ekoizpen-ahalmena 850 AzLUtan finkatuta gelditzen da. Gainera, aurreikusten da errege-dekretua indarrean jarri baino lehen abian zeuden eta 1.2 artikuluan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena gainditzen

zuten ustiatzek ahalmen horri eusten ahalko diotela, baina ezin izanen dutela handiagotu, inola ere.

Aipatutako errege-dekretuaren lehen xedapen iragankorrek adierazten duenez, izapidetze-fasean dauden ustiatzek baimenari buruzko espedienteak, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, baina ekoizpen-prozesuarekin lotura zuzena duten instalazioak eraikitzen hasteko egin beharreko izapide guztiak beteta bazituzten 2022ko apirilaren 6a baino lehen –data horretan bukatu baitzen entzunaldi publikoko izapidea–, izapide horiek bete zirenean indarrean zegoen araudiaren arabera ebatziko dira.

Xedapen horrek erreferentziazko data bat finkatzen du alde batetik, eta, bestetik, ezartzen du zer eskakizun bete behar dituzten data hori baino lehenago aurkeztutako eskabideek errege-dekretuko xedapenak ez dakizkien aplikatzekoak izan. Hori horrela, foru-arauan zenbait alderdi arautzea komeni da.

Hasteko, zehaztu behar da errege-dekretua indarrean jarri baino lehen abian zeuden eta dekretuan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena gainditzen zuten ustiatzek ahalmen horri eusten ahalko diotela, baina ezin izanen dutela handiagotu, inola ere. Ondorio horietarako, ustiatzek horien indarreko ingurumen-baimenean jasotako gehieneko ahalmena hartuko da kontuan.

Bigarrenik, izapidetan dauden espedienteak ebaztean aplikatu beharreko araubide juridikoa zehaztu behar da, eta, horretarako, errege-dekretuaren lehen xedapen iragankorrean finkatutako data hartuko da erreferentzia gisa. Hori horrela, 2022ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztutako behitegien baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, behitegien oinarriko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, aldiz, data horren ondoren aurkeztutakoei, foru lege honetan xedatutakoa.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamen hau aurkeztu da, izapidetua izan dadin.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten dira Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen manu hauek, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

Bat. 28. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“28. artikulua. Distantzia eta gehieneko ekoizpen-ahalmena.

1. Gaixotasunak zabaltea eragozteko eta horien ondorioak ekiditeko prebentzio-neurri gisa, abeltzaintzako ustiatzek erregelamendu bidez ezartzen diren distantziak gordeko dituzte bai haien artean, bai eta haietatik abere kontzentrazioetarako eta abeltzaintzaren arloko jardura agroindustrialetarako edo haiekin lotutakoetarako instalazioei begira ere. Distantzia horiek zehazteko, kontuan hartuko dira inguruabar geografikoak eta abere espezieen ezaugarriak, gehieneko ekoizpen-ahalmena, ustiatzekiaren izaera intentsiboa edo estentsiboa eta arrisku epidemiologikoa.

2. Abeltegietarako gehieneko ekoizpen-ahalmen batzuk ezartzen dira, ustiatzeki berrien edo orain daudenen handitzeen neurriak ez daitezen izan foru lege honen 1. eranskinean ezartzen diren gehienekoak baino handiagoak.

3. I. eranskinean adierazitako gehieneko ekoizpen-ahalmena aplikatzekoa izanen zaie bai abeltzeki berriei bai lehendik dauden abeltzekiak handitzen direnean ere. Edonola ere, abeltzekietan ezin izanen da instalazioen aldaketarik edo ekoizpen-norabidearen aldaketarik egin, horiek gehieneko ahalmena handitzea ekartzen badute”.

Bi. 39. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Agintari eskudunak animalia hiltzea nahitaezkozat deklaratu gero, kalte-ordaina emanen da, indarrean dauden arau eta baremoen arabera. I. eranskinean ezarritako plaza-, AzLU- edo abere-kopuruaren araberrako kalte-ordaina emanen da gehienez”.

Hiru. 54. artikuluar apartatu bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“10. Hiru hilabete baino gehiagoz % 2,5 eta % 4,99 bitarte gainditzea I. eranskinean ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena. I. eranskinean ezarritako gehieneko ahalmena baino handiagoa duten baimendutako abeltzeki kasuan, ehuneko hori aplikatuko zaio abeltzekiak duen ingurumen-baimenaren arabera dagokionari”.

Lau. 55. artikuluari apartatu berri bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“29. Hiru hilabete baino gehiagoz % 5 eta % 9,99 bitarte gaintitza I. eranskinean ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena. I. eranskinean ezarritako gehieneko ahalmena baino handiagoa duten baimendutako abeltegien kasuan, ehuneko hori aplikatuko zaio abeltegiak duen ingurumen-baimenaren arabera dagokionari”.

Bost. 56. artikuluari apartatu berri bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“14. Hiru hilabete baino gehiagoz % 10 edo gehiago gaintitza I. eranskinean ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena. I. eranskinean ezarritako gehieneko ahalmena baino handiagoa duten baimendutako abeltegien kasuan, ehuneko hori aplikatuko zaio abeltegiak duen ingurumen-baimenaren arabera dagokionari”.

Sei. Bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Ezarritako gehieneko mugak gaintitzen dituzten ustiategiak.

Abian dauden eta behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretua indarrean jarri baino lehenagotik dekretu horretan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena baino handiagoa duten ustiategiek ahalmen horri eusten ahalko diote, baina ezin izanen dute handiagotu, inola

ere. Ondorio horietarako, ustiategi horien indarreko ingurumen-baimenean jasotako gehieneko ahalmena hartuko da kontuan. Ezin izanen dute gehieneko neurri hori handitzea dakarren aldaketarik egin instalazioan, ez eta ekoizpenaren orientazioan ere”.

Zazpi. Hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Izapidetan dauden espedienteen ebazpena.

1. 2022ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztutako behitegien —ustiategi berriak, egun dauden ustiategien aldaketa eta/edo handitzea edo orientazio zooteknikoaren aldaketak barne hartuta— baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko zaie.

2. 2022ko apirilaren 6aren ondoren aurkeztutako behitegien —ustiategi berriak, egun dauden ustiategien aldaketa eta/edo handitzea edo orientazio zooteknikoaren aldaketak barne hartuta— baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, beraz, ezin izanen dituzte gaintitu I. eranskinean finkatutako gehieneko neurriak”.

Zortzi. I. eranskin berri bat gehitzen da, testu honekin:

“I. Eranskina
Abeltegien gehieneko ekoizpen-ahalmena (AzLU edo plaza kopuruaren arabera)

Txerri-ustiategien tamaina	AzLU (1) / plazak 864 AzLU
Broiler oilaskoak eta hegaztiak oro har	300.000 plaza
Arrautzetarako eta hazteko oiloak	300.000 plaza
Ugalketarako oiloak eta haiek haztea	60.000 plaza
Kanpora irteten diren hegaztiak	50.000 plaza
Galeperrak	600.000 plaza
Esnetarako behiak	850 AzLU
Haragitarako behiak (2)	850 AzLU
Esnetarako ardi eta ahuntzak	6.000 ugaltzaile edo 600 AzLU
Haragitarako ardi eta ahuntzak	8.000 ugaltzaile edo 800 AzLU
Zaldiak	1250 AzLU
Untxiak	600 AzLU
Erleen kokalekua (3)	200 erlauntza
Espezie bat baino gehiago dituzten ustiategiak	1250 AzLU

(1) AzLU. Koadro honetako AzLUak kalkulatzeko, aintzat hartuko dira 31/2019 Foru Dekretuaren 1. eranskinetako AzLUen baliokidetzak

(2) Zezenketetarako azientaren ustiategiak barne

(3) Gehieneko tamaina erleen kokalekuena da, baina ustiategi batek berak kokaleku bat baino gehiago izan ditzake”.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00013. Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxe ez-unibertsitarioetako jantokiak arautzen dituen araudia alda dezan, halako moduz non dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen artean sartuko baitira despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2023ko martxoaren 7an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Nafarroako ikastetxe ez-unibertsitarioetako jantokiak arautzen dituen araudia alda dezan, halako moduz non dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen artean sartuko baitira despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak Honakoa du testua:

“1 Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako jantokiak erregulatzen dituen araudia alda dezan, dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen

artean sartzeko despopulazio-arrisku muturrekoa eta bizia duten udalerrietan bizi diren ikasleak, hala eskualde-ikastetxeetakoak nola unitarioetakoak, baldin eta eskola-jantokiaren zerbitzua eskatzen badute, gutxienez bermatuta arrazoizko diru-tarte bat, errenta oinarri hartuta, ikasle ez-garraiaturak ordaindu beharreko kuotetan hainbesteko alderik egon ez dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du departamentuen arteko ekinez lan egin dezan landa-eremuko ikastetxeak sendotzera, landa-eremuan lan-bizitza eta familia bateragarri egitea erraztera eta despopulazioaren aurka borrokatzera zuzendutako neurri eraginkorrak hartze aldera”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Aldatzea Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak, 2015eko urriaren 13ko Mahaiaren Erabakiaren bidez onetsiak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko buruak, Zerbitzu Juridikoen oniritziarekin, Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak onesteari buruz egindako txostena, ERABAKI DA:

1. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak, Mahaiak 2015eko urriaren 13an hartutako Erabakiaren bidez onetsiak. Aldatutako testua Erabaki honen eranskin gisa txertatzen da.

2. Aldaketa hau argitara dadin agintzea, zeinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko baitu indarra.

Iruñean, 2023ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoa erabiltzeko arauak

Informazioaren teknologien eta komunikazioen etengabeko garapenak begi-bistako abantailak ekarri dizkio Nafarroako Parlamentuari bere eginkizunak gauzatzeko.

Tresna hauekin datu-kopuru handia kudeatzen da askotariko gailuetatik (mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, smartphoneak eta tabletak), eta gero eta gehiago jotzen da horrelako tresnak erabiltzera. Horren ondorioz, gaur egun erabiltzen den sistema informatikoak badu konplexutasunik, eta segurtasunak ziurtatuta egon behar du uneoro. Erabiltzaileak kontzientziatuta egon behar du informazioaren segurtasunari dagokionez, eta, aldi berean, eskueran dituen sistema informatikoen erabilerari dagokionez, bete beharreko arau batzuk izan behar ditu. Fun-

tsezkoa da, beraz, Nafarroako Parlamentuan ekipamendu informatikoa erabiltzen duen erabiltzaile orok ezagut ditzan.

Horregatik, sistemaren kudeaketa egokia ziurtatzeko, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bertako sistema informatikoa erabiltzeko honako arau hauek onestea erabaki du, ziurtatzeko erabiltzaileek ongi erabiltzen dituztela beren eskura jarritako baliabide teknikoak.

1. artikulua. Ekipamendu informatikoa.

1. Nafarroako Parlamentuak, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuaren bidez, erabiltzaileen eskura jartzen du erabiltzaile bakoitzak bere lanpostuarekin zerikusia duten eginkizunetarako behar duen ekipamendua. Ondorioz, ekipamendu hori Nafarroako Parlamentuaren jabetzakoa da, eta ez da erabileraren pertsonalerako, salbuespenak gorabehera eta era mugatuan, arau hauetan ezarritakoari jarraituz.

2. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuaren unitatea da, ikuspuntu teknikotik, baimena duen bakarra gailu bakoitzak zer hardware- eta software-konfigurazio izanen duen zehazteko eta sare korporatiborako sarbideak administratzeko. Horrek, hala ere, ez du eraginik Erregelamenduan ezarritakoaren arabera Mahaiak Nafarroako Parlamentuaren barne-araubideko eta -gobernuko organo eskudun goren gisa dituen ahalmenetan.

3. Debebatua dago, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuaren baimen espresik gabe, ekipoen konfigurazio fisikoa aldatzea, bai eta bestelako gailuak konektatzea ere (inprimagailuak, eskanerrak, etab.), eta horien kokagunea aldatzea ere bai.

4. Erabiltzaileak debebatua du erabiltzen duen ekipoen softwarearen konfigurazioa aldatzea, hau da, erabiltzaile-profil bakoitzarentzat aurretik zehaztutako konfigurazio logikoaz aparteko pro-

gramak edo bestelako edozein software-mota instalatzea nahiz desinstalatzea. Erabiltzaileak bere ohiko lana egiteko beharko balu aurreikusi gabeko programaren bat, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuari eginen dio eskaera, bere arduradunaren oniritzia duen idazki baten bidez, non beharrak zeintzuk diren zehaztuko baita. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuak, behin eskaera ikuspuntu teknikotik analizatuta, erabakiko du ea egokia den edo ez eskatutakoa instalatzea, eta, kasua bada, behar horiei aurre egiteko ordezko tresna egokiena proposatuko du. Edonola ere, software ororen instalazioa Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuak eginen du, kasuko erabiltze-lizentzia jadanik eskuratuta dagoenean.

5. Erabiltzaileak behar bezala zaindu beharko ditu eskura jarri zaizkion gailuak. Gailua matxuratu, hautsi, galdu edo lapurtua suertatuz gero, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuari eskatuko zaio konponbidea. Ordezko beste gailu bat jartzeko, betiere, kalte-tutako gailua entregatu beharko da, salbu eta gertatutakoa galera edo lapurreta izan bada, zeren eta, orduan, polizia-etxean edo organo eskudunean salaketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko baita ordezko beste gailu bat jaso aurretik.

6. Parlamentuko Mahaiak arautuko du zer kasutan pasa daitezkeen Nafarroako Parlamentuaren jabetzako gailu informatikoak pasa daitezkeen foru parlamentarien jabetzakoak izatera. Kasuotan, gailua erabiltzaileari behin betikoz eman aurretik, erabiltzaileak Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko teknikari informatikoen esku utzi beharko du, hartatik Nafarroako Parlamentuaren jabetzako den softwarea desinstala dezaten eta, hala, ekipoa liberatuta geldidadin.

2. artikulua. Informazioaren tratamendua.

1. Nafarroako Parlamentuaren sare korporatiboa baliabide konpartitu eta mugatua da, eta balio du erabiltzaileak Interneten eta intraneten sartzeko ez ezik, aplikazio informatibo korporatiboetara sarbidea izateko eta sistemen arteko datu-komunikaziorako.

2. Nafarroako Parlamentuaren sare korporatiboan dagoen informazio guztia Nafarroako Parlamentuaren jabetzako da eta, beraz, izaera konfidentziala du.

3. Erabiltzaileek, esleituak dituzten eginkizunen arabera kudeatu beharreko informazioa tratanterakoan, nahitaezkoa izanen dute zuhurtasuna,

isilpekotasuna eta arduratasun profesionala. Traetaera berezia izanen dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian Nafarroako Parlamentuak bere erantzukizunpekoak diren aldetik erregistratutako fitxategietan jasotako datu pertsonalek, zeinak Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoaren eta ondorengo arau aplikagarrien babesa baitaude.

4. Erabiltzaileak, beraz, Nafarroako Parlamentuan ezarritako segurtasun-politiken arabera jokatu du.

3. artikulua. Laguntza- eta mantentze-lanak.

1. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuak beharrezko laguntza emanen du gerta daitezkeen intzidentzia eta matxuretan. Kasuan kasuko langileek zilegi izanen dute beharrezkoak diren ekipoak, programak eta komunikazio-elementuak gainbegiratzea, beharrezko laguntza-, kudeaketa-, mantentze- eta hobetze-lanak egiteko.

2. Laguntza-eskaera oro, edozein motatakoa dela ere, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuari egin behar zaio lehen urrats gisa, horretarako ezartzen diren baliabideen bitartez.

3. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko langileen ekipoetatik urruneko kontrolaren bidez konpon daitezkeen intzidentzietan, erabiltzailearen alde aurreko baimena beharko da konponketa horrela egiteko.

4. Matxurek edo intzidentziek izaera pertsonaleko datuen segurtasuna arriskuan jartzen badute, intzidentziak jakinarazteko prozedura erabiliko dute erabiltzaileek, halako prozedura bat gaitua izanen baitu segurtasun-arduradunak. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuak beharrezko laguntza emanen du matxura edo intzidentzia konpontzeko, eta intzidentzien erregistroan erregistratuko du.

4. artikulua. Segurtasuna eta kontrola.

1. Sistema informatikoaren segurtasuna mantentzea helburu, nahitaez bete beharko dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuak proposatuta unean-unean ezarritako segurtasun-neurriak. Halaber, bete beharrekoak izanen dira izaera pertsonaleko datuei buruz Nafarroako Parlamentuaren Segurtasun Agirian ezarritako segurtasun-neurriak.

2. Bere ohiko lana egiteko ordenagailu edo gailu mugikor bat erabiltzen duen orok erabiltzaile-

izen batez adierazi beharko du nor den –Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuak emanen dio izen hori–, eta pasahitz bat erabili beharko du, Nafarroako Parlamentuko Segurtasun Agirian ezarritako moduan erabiltzaileak berak sortua. Erabiltzailea izanen da pasahitza dakien bakarra eta horren arduraduna, eta, pasahitzaren erabilera pribatua ziurtatzearen, egoki irizten badio pasahitza aldatzeari, betiere izanen du horretarako modua.

3. Erabiltzaileak susmatzen duenean beste norbaitek erabili duela bere nortasuna, berehala adierazi beharko dio Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuari.

4. Lanpostua aldi baterako uztean, saioa amaitu egiten du erabiltzaileak edota, bestela, ekipoa blokeatuta utzi. Lanaldiaren amaieran, ekipoa behar bezala itzalita utziko dira.

5. Arreta berezia eskaini beharko zaio Parlamentuaz kanpotik posta elektronikoz, kanpoko fitxategien bidez edo bestelako tresnen bidez iritsitako informazioari, bai eta ordenagailuan kanpo-euskarrien bidez sartutakoari –konparazio baterako, diskete, CD/DVD edo USB gailuen bidez sartutakoari–; izan ere, edozein birus-mota sartuz gero, horrek eragina izan baitezake ez soilik norberaren ordenagailuan, baita gainerako guztietan ere, konektatuta baitaude sare lokalaren bidez. Gailuok lanpostuetan instalatutako birusen kontrako programarekin analizatu behar dira.

6. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuaren ardurak da birus informatikoen kontrako babes egoki eta eguneratua ematea. Babes horrek eskatzen du etengabeko eguneratzea egin dadin lanpostuetan, zeina modu automatikoan egiten baita, erabiltzailea sare korporatibora edo Internetera konektatuta dagoenean.

7. Erabiltzaileak, birusen kontrako softwarearekin zerikusia duen edozein anomalia detektatuz gero bere lanpostuan, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuari adieraziko dio. Gomendagarria da erabiltzaileek, aldian-aldian, beren biltegiatze-unitateak eskaneatzea, eta betiere jokatzeko horrela jatorri ezezaguneko edo susmagarriko fitxategiekin.

8. Sistemaren prestazioak hobetzeko helburuz, eta gerta daitezkeen matxurak edo intzidentziak kontuan hartuta, gomendatzen da datuak karpeta-tan eta azpikarpetatan antolatuta izatea, eta beharrezkoak ez diren datuak ezabatzea, bereziki posta elektronikoa dagozkionak.

9. Debekatua dago baimendu gabeko gailuak konektatzea Nafarroako Parlamentuko sareari.

10. Erabiltzaileak babestu egin beharko ditu Nafarroako Parlamentuak eskuratu dizkion gailuetan dauden datuak, erakundeak ezarritako segurtasun-neurrien bidez. Halaber, eskuratu zaizkion aktiboetako edozein galtzen badu edo lapurtzen badiote, horren berri eman beharko du.

5. artikulua. Informazioaren babesa.

1. Erabiltzaile bakoitza arduratuko da esleitu zaion ordenagailuan gordetako informazioaren segurtasunaz. Halaber, informazio hori babesteko eginkizunen arduradun ere izanen da. Zerbitzari korporatiboetan gordetako datuen aldizkako segurtasun-kopiak egitea Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuaren ardurak da.

2. Beharrezkoa izanez gero edo egoera berezietan, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuak baliabide osagarriak ematen ahalko ditu informazio bereziki delikatua babesteko.

6. artikulua. Interneten sartzeta.

1. Interneterako sarbidea helburu profesionalerarako da. Debekatua dago multimedia artxibo edo fitxategiak igotzea edo jaistea, baldin eta duten bolumenagatik Parlamentuaren barneko sarea kongestionatu badezakete, eta debekatua dago, halaber, lanpostuarekin zerikusirik ez duen inolako software-rik igotzea edo jaistea. Erabiltzaileak horrelako artxibo edo fitxategiak igo edo jaitsi behar baditu bere eginkizunak gauzatzeko, baimena eskatu beharko dio Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuari.

2. Beren ezaugarriak direla-eta birusak edo malwarea kutsatzeko arriskua izan dezaketen webguneetan, zuhurtasun are handiagoz jokatu beharko da. Interneterako sarbidea kongestionatua badago edo gaizki funtzionatzen badu, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiko Zerbitzuak baimena du behar diren azterlanak eta kontrolak egiteko problema zein den zehazteko, eta mugatu egin dezake bai zerbait webgunetarako sarbideari eta bai sistemaren errendimenduari kalte egiten dioten fitxategiak jaistea.

3. Interneten bidez lortutako edozein artxibo erabili aurretik, erabiltzaileak egiaztatu beharko du ea artxibo hori jabetza intelektualaren edo industrialaren arloko legeek babestua ote dagoen.

7. artikulua. Posta elektronikoen erabilera.

1. Posta elektronikoa lan-tresna bat dela jotzen da, erakundearen jabetzakoa, eta erabiltzaileak bere gain hartzen ditu berak igorritakoek erakundeari eta hirugarrenei eragin diezazkieketen kalteak. Horregatik, posta elektronikoen erabilerak arlo profesionalera mugatua behar du.

2. Erabiltzaile bakoitzak, Nafarroako Parlamentarekin lotura duen bitartean, posta elektronikoko helbide individual bat izanen du.

3. Posta elektronikora sartzeko nahitaezkoa izanen da adieraztea, 4. artikuluan 2. idatzatian zehaztu den moduan, nor zaren datu-sarearen domeinuan.

4. Nafarroako Parlamentuko posta elektronikoa sar daiteke bai sare korporatiboaren bidez, posta-bezero estandarrek erabiliz, bai sare horren kanpotik ere, webmail zerbitzua erabiliz, zeinak posta-kontuetan web bidez sartzeko modu seguru bat eskaintzen baitu Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuak zehaztutako segurtasun-murriztapenekin. Nafarroako Parlamentua ez da erabiltzaile-profilak sortutako informazioaren erantzule izanen (helbide-liburuak, kontaktuak, igorritako mezuak, fitroak, etab.).

5. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuak ezarritako segurtasun-neurriek posible egiten dute, enkriptatze bidez eta igorritako mezuen sinaduraren bidez, igorritakoaren sekretutasuna eta benetakotasuna ziurtatua egotea.

6. Posta elektronikoko kontu bakoitzak biltegiatze-baliabide multzo mugatu bat du atxikia. Postontzia betetze-mugatik hurbil dagoenean, sistemak ohartarazpen bat igorriko dio erabiltzaileari. Behin muga gaindituta, posta-helbidera iristen diren mezuak atzera botako dira, harik eta postontzia hustu arte. Erantsitako fitxategien gehieneko tamaina 25 MBkoa da. Kontuan hartu behar da hartzaileren zerbitzariak ere mugak izan ditzaketela eta, muga horiek tarteko, gerta daitekeela banaketa egin gabe gelditzea hartzaileren zerbitzariaren muga 25 MBtik beherakoa delako. Posta-mezu baten gehieneko hartzailere-kopurua 150ekoa da.

7. Erakundearen posta elektronikoa babestua dago birusen kontra eta posta elektronikoen abusuzko erabileratzat katalogatutako jokabideen kontra –alegia, spam izenekoaren kontra–. Babes

hori software berariazko baten bidez gauzatzen da, halako moduz non detektatzen baldin bada eduki desegokiko mezuak jaso direla, baimendu gabeko kanalen bidezko edota baimendu gabeko hedapen masibo bidezko igorpenak egin direla, zerbitzua zailtzen edo ezintzen duten erasoak gertatu direla, birusak dituzten mezuak jaso direla, eta abar, erakundeak erabaki baitezake mezu horiek blokeatzea edo atzera botatzea, jatorri duten erakundea edozein dela ere.

8. Posta elektronikoko zerbitzuak ez du inongo kasutan ziurtatzen mezu baten banaketa, zirkunstantzia ugariengatik gelditu baitaiteke hartzailera mezua jaso gabe: komunikazio-lineen erroketak aurreikusigabeak, hartzaileren postontziaren biltegiatze-mugak, birusak direla-eta mezuak atzera botatzea, mezuaren tamaina handiegia, helbide gaizki idatziak, etab. Zerbitzarian, mezuen zirkulazioaren aztarnak gelditzen dira, halako moduz non sistemaren administratzaileak modua izanen baitu zerbitzuaren funtzionamendu onerentzat problemaren bat ekar dezaketean intzidentziak konpontzeko.

9. Posta elektronikoko informazioaren babesari dagokionez, 5. artikuluan ezarritako gidalerroei jarraituko zaie. Gomendatzen da behar-beharrezkoak diren posta-artxiboak bakarrik biltegiatzea, horrelako datuek bolumen handia hartzen baitute.

10. Erabiltzaile batek erakundearekin harremana izateari uzten dionean, bere kontua desaktibatua egiten da, eta, beraz, baja emanen zaio esleitura duen posta-helbide elektronikoa, eta bere postontzia ezabatu egiten da zerbitzaritik.

11. Erabiltzaile batek, lan-beharrak hartaratu, bere gailu pertsonal batean konfiguratu behar badu posta-kontu korporatiboa, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuari horretarako baimena eskatu beharko dio. Baimen hori eman ez gero, Zerbitzu Orokorretako teknikariak izanen dira konfigurazio hori egiteko baimena izanen duten bakarrak, eta erabiltzaileak, gerora, ezin izanen du horretan aldaketarik egin.

8. artikulua. Arauen betetzea.

Nafarroako Parlamentuko sistema informatikoen erabiltzaile guztiak daude behartuta arau hauek betetzera.

9. artikulua. Indarra hartzea.

Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan hartuko dute indarra.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena.

ZUZENKETAK MANTENTZEA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamenaren irizpena, Erregelamendu Batzordeak onetsia. Proposamena 2023ko otsailaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aipatu irizpenari buruz, Osoko Bilkuran honako zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren 6., 7. eta 9. zuzenketak.

– Navarra Suma talde parlamentarioaren 8., 14., 23. eta 24. zuzenketak.

Zuzenketa horiek 2023ko martxoaren 3ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2023ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
